

**NAFARROA OINEZ, 2005**

*Altsasu, 2005-IX-23*



## ONGIETORRIA

*Luciano Agirre Goikoetxea,  
Sakanako Mankomunitateko lehendakariordea*

Arratsalde on, guztioi:

Lehenik eta behin, eta Sakanako gainontzeko hautetsien izenean, eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari Sakanan bere ohiko bilera bat egiteagatik, eta gaurko hitzaldi sorta interesgarria antolatzeagatik. Era berean, ongi etorria eman nahi dizuet hitzaldi hauetara etorri zareten guztioi, eta eskerrak eman antolaketan parte hartu duten guztiei.

Gure erakundeetako helburuetako bat eskualdeko euskararen normalizazioa da. Helburu horri jarraiki, oso inportanteak dira Sakanako euskararen eta kulturaren ondarea jaso eta gizarteratzeko ekimenak. Alde horretatik, Sakanako euskarari eta kulturari loturiko izen handiak ditugu Jose Maria Satrustegirena eta Juan Goikoetxearenak, lan handia egin baitute alor horietan.

Beraz, Sakanako hautetsiendako eta oro har sakandar guztiendako ohore handia da bi euskaltzain horien bizitzari eta lanari buruzko saioak aditu ahal izatea. Halaber, azpimarratu nahiko nituzke Maria Floresek eta Koldo Zuazoren lanak, Burundako testigantzak jaso eta ikertu dituzten aldetik, egoki eta zuzen.

Ohorea da guretzat horrelako lanen berri izatea, are gehiago, aurtien gure eskualdean eginen den *Nafarroa Oinezaren* ekimena den aldetik. Ohorea bi-koitza da, beraz.

Eta, besterik gabe, Euskaltzaindiko burua den Andres Urrutiari emanen diot hitza.

## **NAFARROA OINEZ, 2005**

### **Agurra**

*A. M. Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua*

Arratsalde on guztioi:

Beste behin ere, Euskaltzaindiak bat egiten du Nafarroako ikastolekin, *Nafarroa Oinez* ekimenaren bitartez. Altsatsuko herriak hartzen gaitu aurten, *Iñigo Aritza* bertoko ikastola ere ikusteko aukera izan dugula.

Askoren ustez, bisita hutsa izan daiteke urtero-urtero *Nafarroa Oinez* antolatzen duen ikastolari egiten dioguna. Gure Erakundearentzat, ostera, abagune ederra eta aproposa izaten da urtean zehar Nafarroan egiten dituen hamaikatxo lan, bilera eta ekintza berresteko eta erakusteko.

Izatez, Nafarroa da Euskaltzaindiaren helburu nagusietariko bat; bide beretik ere, Nafarroan garatzen du Euskaltzaindiak bere ekinaren alderdi garrantzitsua, hain zuzen, egun zuen aurrean plazaratzen dena, gure Erakundeari ezinbestekoa baitzaio Nafarroan euskararen irakaskuntza sustatzea eta bultzatzea. Horien artean, zalantzarik ez, ikastolak joan diren berrogei urte hauetan egiten ari diren lan eragingarria.

Ez da, horratio, honako hau Euskaltzaindia Altsasura datorren lehen aldia. Izan ere, uda honetan gure artetik joan zitzaigun Aita Ondarra euskaltzainak hemen egin zuen bere sarrera-hitzaldia, Kaputxinoen konbentuan, orain dela hamalau urte. Zehatzago esanda, 1981. urteko martxoaren 22an. Gaia izan zuen Aita Polikarpok –hura ere euskaltzain osoa eta kaputxinoa– zituen euskal eskuidatzi zaharren aurkezpena. Berak bete zuen, hain zuzen, Aita Polikarporen heriotzak Akademiaren barruan utzi zuen lekua.

Haren aipamenak gogora dakarkigu Sakanako beste euskaltzain nafar batena, hain juxtu ere, Jose Mari Satrustegirena. Badakit Altsasuko ikastolak aspalditik hartu duela Satrustegiren bandera. Hortaz ere, gure goresmenak eta eskerrak, elkarrekiko lana onuragarria baita beti euskalgintzaren esparruan.

Aurrera doaz ikastolak, aurrera eraman nahi dute euskara, nafarrek betidanik izan duten hizkuntza ere aitzina joan dadin. Jakin bezate langintza horretan Euskaltzaindiaren laguntza eta bultzada dutela eta izango dutela.



Ez dezadan, alabaina, nire hitzalditxo hau larregi luza. Hemen dira jada arratsalde honetan hizlari izango ditugunak. Hasteko, Andres Iñigo euskaltzain osoa mintzatuko zaigu Juan Goikoetxea apaiza eta euskaltzain urgazleari buruz, arbizuarrek ongi gogoratuko duten euskaltzale fin eta zorrotzaz; horren hurrengo, Patxi Salaberri euskaltzain urgazleak Satrustegiren zereginak gogoratuko dizkigu; gero, Koldo Zuazo unibertsitateko irakasleak Burundako euskararen ezaugarriak xehetuko ditu eta amaitzeko, Maria Flores, bigarren hekontzako irakasleak, hitz egingo digu Sakanako basolangintzari buruz.

Artean, musika emanaldi laburra izango dugu eta ekitaldia ixteko, Polentzi Goikoetxea, *Iñigo Arista* ikastolaren lehendakariordeak, agurra egingo du.

Eskerrak, beraz, Altsasuko herriari eta bere Udalari, gaur goizean Udaletxeko batzar aretoan egin baitugu hilabete honetako Euskaltzaindiaren osoko bilkura.

Orain hizlariak dute hitza.

Andres Iñigo euskaltzainkidea, zu zara lehena...



## AGURRA

*Polentzi Goikoetxea,  
Iñigo Aritza Ikastolako lehendakariordea*

Euskara eta euskal kulturaren aldeko lana izanik *Iñigo Aritza* gure ikastolaren jardueraren ardatza, ohore handia izan da guretzat gure hizkuntzaz arduratzen den Erakunde gorena gaur gure artean izatea, *Nafarroa Oinez*, Nafarroako ikastolen jai nagusiari bere babesa eta laguntza eskainiz.

Eskerrak eman nahi dizkizuet, hitzaldiak eskaini dizkiguzuenoi, Andres Iñigo, Patxi Salaberri, Koldo Zuazo eta Maria Flores, gaien edukia eta hurbiltasuna direla eta, biziki interesgarriak gertatu zaizkigulako zuek esandakoak.

Honekin batera, aipatu nahi dut baita ere, 2005eko *Nafarroa Oinez*-en Jose Maria Satrustegi euskaltzain, antropologo eta etnografo sakandarra omen-du nahi izan dugula, Nafarroan euskararen eta euskal kulturaren alde –eta bereziki ikastolen alde– izan duen lotura estua dela eta. Gure ikastolako hainbat ekintzatan –zuzenki zein zeharka– esku hartu zuen eta ospakizun hau gure eskerrona adierazteko une egokia dela, iruditu zaigu. Proiektu hau aurrera eramanez ahal izateko ezinbestekoak gertatu zaizkigun Andres Iñigo eta Patxi Salaberriri gure eskerrik zintzoenak, zuen eskuzabaltasuna eta laguntza eskaintzeagatik.

Eta ekitaldiari amaiera emateko eskerrak eman nahi dizkiot *Iñigo Aritza* Ikastola osatzen dugun guztion eta *Nafarroa Oinez* 2005aren izenean Euskaltzaindiari, bere iraileko ohiko bilkura eta ekitaldi hau Altsasun ospatzeagatik; eta bide batez esan, noski, gonbidatuak zaudetela, guztiok, datorren urriaren 16an, *Olazti* eta *Ziordia* artean prestatutako ibilbidean egingo den *Nafarroa Oinez* 2005era.

Hantxe ikusiko dugu berriz elkar denok. Ongi izan eta mila esker.

## JUAN GOIKOETXEA ZABALO, EUSKALTZAIN URGAZLEA, JAIO ZENEO MENEURENEAN

Altsasuko *Iortia* Kultur Gunea-n,  
2005eko irailaren 23an

Andres Iñigo,  
Euskaltzaindiaren ordezkaria Nafarroan

D. Juan Goikoetxea Zabalo, Larraun ibarreko Lezaeta herrixkakoa zen, Ualdea izeneko etxekoa. 1905eko azaroaren 18an (1) jaio zen eta Donostian hil 1973ko ekainaren 30ean. 1965az geroztik euskaltzain urgazle izan zen. Hori dela eta, Iñigo Aritza Ikastolak Nafarroa Oinez 2005 inguruko ekitaldiertara gonbidatuta, Euskaltzaindiak Altsasun egin duen osoko batzar egunean gogoratu nahi izan du 40 urtez Arbizuko erretore izan zen Juan Goikoetxea euskaltzain urgazlea bere jaiotze urtearen mendeurren honetan.

Aldez aurretik, aitortu behar dut ez zaidala erraz izan zenbaitek «idazle argia» izan zela dioten euskaltzain urgazle honetaz informazioa jasotzea.

Zenbait liburu eta aldizkaritan informazio urria aurkitu ahal izan dugu. Erraterako, *Nafarroako euskal idazleak* (2) bi liburukietan ez da aipatu ere egin. Jose Mari Jimeno Juriok *Navarra. Historia del Euskera* (3) liburuan ez dakar bere aipamenik, ez gerra ondoko euskararen berpizkunde aroa tratatzen duenean ezta Nafarroa Garaiko eta Behereko euskaltzain oso eta urgazleen zerrendan ere. Jose Mari Satrustegik *Euskera* aldizkarian idatzitako hilberrian (4) hogeitaz eskaini zizkion. Santi Onaindiak *Euskal Literatura* (5) lanean egin duen aipamen xumea J. M. Satrustegik idatzitako hilberri laburraren laburpena da. Jon Bilbaok ere Satrustegiren hilberria besterik ez du aipatzen. Nafarroako Aurrezki Kutxak 1990ean hamaika aletan argitaratu eman zuen *Gran*

---

(1) Bere aita Martin Goikoetxea, Intzakoa zen eta ama Estefania Zabalo, Azpirozkoa. Aitaren aldeko aiton-amonak, Jose Maria Goikoetxea eta Maria Mikaela Otamendi, Intzakoak; amaren aldeko aitona, Juan Bautista Zabalo, Azpirozkoa eta amona, Maria Mikaela Olaetxea, Lezaetakoa. (Azpirozko parrokiako Bataio Liburuko 3. aleko 151. orrialdetik jasoa).

(2) *Nafarroako euskal idazleak I*, Jose Maria Larrea & Pedro Diez de Ultzurrun, Pamiela, 1987; *II*, Jose Maria Larrea, Pamiela, 1995.

(3) *Navarra. Historia del Euskera*, Txalaparta, 1997.

(4) Hil berriak atala. «Juan Goicoechea Zabalo (1905-1973)», *Euskera* XIX, 1974, 438. orr.

(5) *Euskal Literatura*, V, 915-1940, Bilbao, 1977, 399-400. orr.

*Enciclopedia Navarra* (6) obrak eskaintzen dizkion bizpahiru lerrotan dioen bakarra da Arbizuko erretore izan zela eta *Príncipe de Viana* aldizkari gehigarrian euskaraz idazten zuela. Bere euskaltzaletasunaz fitsik ez. Joxemiel Bidadorrek iaz argitara eman zuen *Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra* (7) sei lerro eskaintzen dizkio. Eta horietan, batetik dio Gasteizen egin zituela apez ikasketak –han bakarrik bi urte egin zituen–, eta bestetik «sus colaboraciones en el Suplemento (*Príncipe de Viana*-n) solían ser crónicas informativas de lo acaecido en la villa barranquesa» –gero ikusiko dugun bezala, ez da informazio zuzena–.

Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian bi aipamen besterik ez dugu aurkitu. Bata Donostiako Diputazioan 1965eko irailaren 24an egindako bilkura-ko akta, non Juan Goikoetxea jauna euskaltzain laguntzaile edo urgazle izendatu zuten beste 31rekin batera, horien artean, Patxi Altuna, Jean Louis Davant, Karmelo Etxenagusia, Rudolf de Rijk, etab. Bestea, lehen aipatu dugun J. M. Satrustegiren hilberria. Arruazuarrak laburki egindako iruzkinean ageri diren ideia eta balorazioak bat datoz D. Juan ezagutu zutenengandik jaso ditugunekin. Honako hauek dira:

- Buru oso argikoa eta bihotz zabalekoa.
- Euskal nortasunean Nafarroako apezetatik jatorrenetako bat. Beregan aurkitu izan dute beti Sakanako apezkideek kontseilari jatorrena.
- Euskaltzale kementsua. Euskararen aldeko lan sakonaren lekuko Arbizuko herria da.
- Euskaltzaindiko laguntzaile eta zazpi-zortzi urtez *Príncipe de Viana* euskal aldizkarian elizako gaiez idazle.

Antzekoak izan ziren D. Juan zendu eta hurrengo egunetan beste zenbaitek idatzi zituztenak. Felipe Araña arbizuarrak (8), *Diario de Navarra*-n «Eskerrik asko Don Juan» izenburuko artikuluan herriaren alde egin zuen lana azpimarratzen du. Fermin Ixurko uitziarrak, egunkari berean eta *Príncipe de Viana* aldizkarian argitara eman zuen «Larraundar prestu bati, agur!» artikulua eskaini zion (9). Bertan dio Orixeren eragina sumatzen zuela Goikoetxearengan eta Orea eta Lezaeta (10) herrixketatik ateratako bi gizon handi hauek goraiatzen ditu.

Hau izan zen, gutxi gorabehera, hasiera batean aurkitu ahal izan genuena. D. Juanen euskararen aldeko lanaz zertxobait gehiago jakin-nahian bera ezagutu zutenengana jo genuen, apezengana bereziki. Horietako gehienek –eta badira franko oso hurbiletik ezagutu zutenak–, gezurra badirudi ere, zer eta

(6) *Gran Enciclopedia Navarra*, Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea, 5. zenbakia, 366. or.

(7) *Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra*, Pamiela, 2004, 277. or.

(8) «Eskerrik asko Don Juan», *Diario de Navarra*, 1973-VII-13, 23. or.

(9) «Larraundar prestu bati, agur!», *Diario de Navarra*, 1973-VII-13, 23. or.; *Príncipe de Viana*, 1973ko uztaila-agorrila, 2. or.

(10) Ixurkok agiri zaharretan ageri den *Lezeta* izena erabiltzen du.

non idazten zuen ere ez zekitela erantzun ziguten. Beste batzuei esker informazio edo agiriren bat edo beste eskuratu ahal izan dugu (11).

Goazen, bada, Juan Goikoetxearen bizitza eta lana hurbilagotik ikustera.

Ez zuen, zenbaitek dioten bezala, apez ikasketa osoa Gasteizko Seminarioan egin. Sei urte zituela, Toloserriko Ikaztegieta herrira eraman zuten, Benito Ijurrak dioenez (12), han zuen osaba apezaren etxera. Hamar urte betetzear zegoela Andoaingo Seminario Txikian sartu zen. Ikastetxe honetan bost ikasturte egin zituen. Ondoren, Filosofiako bi Gasteizen, lehendabizikoa Agirre apezgaitegian (13) eta hurrengoa Seminario Conciliar (14) delakoa. Handik Iruñeko apezgaitegira (15) joan eta bertan Teologiako lau lehendabiziko ikasturteak egin zituen (16). Azkenik, Teologiako bosgarrena eta Zuzenbide Kanoniko-ko ikasturte bat Zaragozan burutu zituen (17). 1928ko martxoan, 22 urte besterik ez zituela, apeztu zen (18).

Apeztu eta bi hilabete geroago, 1928ko maiatzean, Ultzamako Ilarregi herrikara igorri zuten. Bost urte geroago, 1933an, Arbizura erretore. Azken honetan 40 urte egin zituen, 1973an hil zen arte.

Euskararen alde egin zuen lana hiru ataletan sailka genezake:

#### 1. Arbizu herrian euskara eustearen alde egindakoa.

---

(11) Bereziki aipatu nahi ditut eta eskerrak eman. Felipe Araña, fraidea, Arbizuko semea; Joxe Mari Aleman, leitzarra, Azpirozko erretorea; Emilio Lintzoain, eugierra, Orreagako kalonjia; Basilio Sarobe, lesakarra, Sunbillako erretorea; Migel Angel Sagaseta, iturendarra, Urdiaingo erretorea; Juan Mari Madoz, Arbizuko bikario ohia eta egun Baraibarko erretorea; Jose Luis Sales, Iruñeko elizbarrutiko artxiboko arduraduna; Kike Diez de Ultzurrun, *Príncipe de Viana* aldizkariaren zuzendari izan zen D. Pedrorren semea; Milagros Goikoetxea, D. Juan zenaren iloba.

(12) «D. Juan Goikoetxea'ri Arbizuko erriak», *Arbizu* izenburuko aldizkaria (herrian bertan egin zen zenbaki berezia eta bakarra), 1974.

(13) Seminario Eclesiástico de Aguirre.

(14) Seminario Conciliar de San Prudencio y San Ignacio de Vitoria.

(15) Seminario Conciliar de Pamplona.

(16) Garai hartako ohituraren arabera, Iruñeko elizbarrutiko *Boletín Oficial Eclesiástico* delakoan urtero argitaratzen ziren apezgaien emaitzak. Juan Goikoetxea Zabalok teologiako ikasgai guztietan *Meritissimus* lortu zuen (Ikus aipatutako aldizkari ofizialeko 1923. urteko 191. or, 1924ko 300. or, 1925eko 389. or. eta 1926ko 488. or.). Gasteizko apezgaitegitik Iruñekora igorritako Filosofia ikasketetako espedientean ere ikasgai guztietan *Meritissimus* lortu zuen.

(17) San Francisco de Paula apezgaitegian.

(18) 1925ean, Eguberri aurretik hartu zituen «Ordenes Menores» direlakoak. Urte bat geroago, 1926ko abenduan, egin zen Subdiakono (Zaragozan), 1927ko abenduan Diakono (Zaragozan) eta 1928ko martxoan apez (Iruñean). Apez egiteko 22 urte besterik ez zituenez gero, baimena eskatu behar izan zuen. Iruñeko gotzain zen Mateo Mujikak 1928ko martxoaren 6an sinatu zuen baimenak honela zioen:

Dispensamos al orador D. Juan Goicoechea Zabalo, diácono, del tiempo necesario para poder recibir el sagrado orden del Presbiterado, siempre que haya aprobado los cursos de Sagrada Teología previstos por la Iglesia, ejerza el Ministerio bajo la dependencia de un sacerdote de edad «profecta» y no se le conceda desde el principio licencia para oír confesiones, señaladamente de mujeres, sino en caso de necesidad «servatis in reliquis de jure servandis» (Archivo Diocesano de Pamplona. Expedientes de órdenes, caja 752, 1).



- Hori da lehen aipatu ditudan F. Araña, F. Ixurko, J. M. Satrustegi eta abarrek gehien baloratu zutena hil zenean. 24 urte geroago ere, Joxemari Murua Goñi jaunak (19) *Diario de Navarra*-n «Arbizu'ko Don Juan» izenburuko artikuluan honako hau zioen: «Beti esan izan da, Arbizu'k D. Juan'i esker eutsi ziola euskarari ... inguruko errietan atzerakada galanta egin zuen bitartean».
- Ildo bereko lekuko bitxia dugu Lekunberrin elkartzen zen –eta oraindik ere elkartzen omen den– apezan San Pedroren Anaitasunako (Ermandadeko) kideek 1973ko uztailaren 17an egin zioten hileta mezan Emilio Lintzoainek sermoian errandakoa. Hona hemen pasartetxo pare bat (20): «Don Juanek adimenez, oroimenez, jakinduriz, burua oso ongi orniturik zauken. Ala ere, etzuen jauregietara jo, baizik erri apalaren artean bere bizi guzia pasatu du» (21). Eta aurreraxeago dio: «Jesukristo bere erriaren izkuntzan mintzatu zen. Ez dugu uste latin edo elendarra ibili zuenik. Don Juan ere bere erriaren izkuntzaz –euskeraz alegia– geienean baliatu zen. Nik ezagutu nueneko, Don Juanen baitan gauza berexi eta aipagarri bat nabaritu nuen, «rara avis» denbora aietan. Don Juanek bere lagun apezei ere euskeraz zuzentzen zigun bere itza, naturaltasuneikin, alardetik egin gabe».
- Arbizuarrak, Don Juan zendu zeneko lehenbiziko urteurrenean, *Arbizu* izeneko aldizkari berezi bat argitaratu zuten. Bertan Benito Ijurrak dio, Goikoetxeak erakutsi zuela euskaraz «erdaraz bezein ongi ta obeki ta gozoago esan ditezkeela egi ederrenak», eta horregatik «Arbizuko jendeari euskera atsegin izan dakio» eta arbizuarrak «euskeraz gauza aunditzat irui ta maitatu dute» (22). Santiago Urkiak beste artikulua batean honela zioen:

«escribo estas breves líneas para agradecer a D. Juan lo mucho que hizo en pro del Euskera al que no dejó morir como otros lo hicieron». Eta aurrerago: «Gracias a D. Juan nuestro Arbizu ha podido y débese sentir orgulloso de haber conservado, a pesar de las vicisitudes y contratiempos, su rico euskera. ¿Quién no recuerda sus enseñanzas transmitidas a través de su palabra sencilla, a la vez que robusta y suave? Desde los primeros pasos que nos acercaron a la preparación del catecismo y en todas sus pláticas supo aprovechar el medio de comunicación más adecuado para llegar al alma de los arbizuarras, el euskera» (23).

(19) «Arbizu'ko Don Juan», *Diario de Navarra*, 1997-X-10.

(20) Egileak berak emandako sermoiaren kopiaetik hartutako pasarteak.

(21) Iruñeko parrokia bat baino gehiago eskaini omen zioten, baita maila altuagoko kargu-bat, baina berak, nonbait, ez zuen herri euskaldunetik atera nahi izan.

(22) «D. Juan Goikoetxea'ri Arbizuko erriak», *Arbizu* izenburuko aldizkaria (herrian bertan egin zen zenbaki berezia eta bakarra), 1974.

(23) «D. Juan Goikoetxea y el euskera en Arbizu», *Arbizu* izenburuko aldizkaria (herrian bertan egin zen zenbaki berezia eta bakarra), 1974.

- Aipagarria da *Príncipe de Viana* aldizkariak 1974ko maiatzeko zenbakiaren lehenbiziko orrialdean argitaratu zuen «Euskara parrokietan» artikulua. Hizkuntzaren iraupenerako Elizak duen garrantziaz ari da, eta artikulua horren egile anonimoa deitoratzen hasten da herriratu batzuetan, apezten utzikeriagatik, euskarak izan zuen atzerakada. Baina aurrerago dio: «apaiz danak ez dira olakoak ... Behin gure euskal erri egitazko bat ezagutzeko gogoia neukan. Arbizu euskal erri jatorra zela erran zidaten; pozik joan ere. Izen aundiko erretora zeukatzen, Juan Goikoetxea. Euskaltzale amorratua genuen, idazle argia ta apaiz ziñezkoa ... Don Juan'ek garbi asko erran zidan: “Guk Kristau-ikasbidea danok emen euskaraz egin izan ba'genu, Sakana'n (Barranka'n) gure izkuntza etzan galduko”» (24).
- Urte franko lehenago, Sakanatik urrutixeago ere izan zuten D. Juan euskararen alde egiten ari zen lanaren berri. Euskaltzaindiko artxiboan guk nahi baino informazio gutxiago aurkitu dugun arren, bada Azkue liburutegian gutun interesgarri bat: Juan Goikoetxeak 1956ko abenduaren 12an Norbert Tauer jaunari Pragara igorri ziona. Ikusten denez, Tauer-ek Goikoetxeari idatzitako baten erantzuna da. Erantzun gutun horretan, laburra bada ere, ongi eta argi ageri da zenbaitek aipatu duguten Goikoetxearen izaera. Laburra denez gero, irakurri egingen dut:

Arbizutik Abenduaren 12<sup>a</sup> 1956  
Tauer'tar Norbert Jaunari  
Pragan.

Nire jaun agurgafi ori, agur: Lotsa-lotsa egiñik naukazu zure idazki xamur ta ugariakin, ez naiz idazle, nagia nazu lankide otarako, aiean-aiean borxatatu nauzu, ordea, erantzutera. Nire luzapen au azketsi, afen.

Euskeraren alde zerbait egin dutela ta, ala ikasi duzula ta Amerikar izpañgi batetik ta, besterik gabe idatzi diazu Pragatik, afiturik utzi nauzu, afiturik eta atsegiñez beterik, nundik eta Pragatik... atzefitar batek... lendik ere zure idazlan jatoraz ezagutzen zenitudan, baño ain gure genizunik ez nuen uste, zorionak bada zuri euskaldun ok ta gure izkuntz zar onek gartsuenak damaizkizu.

Emen nik egin dutena utsa da, ots, denok egin bear giñukena, euskaraz mintzatu, denakin, aufakin batez ere, ta Jaungoikoarekin euskeraz mintzaten erakutsi ta besterik gabe ala jarduten dute, datozen atzeritarak berekin jolastekotan bearko ikasi, bi ilabetetarako lardaskatzen asten dira, urterako jatof.

Nire lantxo ori aipatu bear izatera tamalgafi zait, beste hainbeste gañerakoak ezdagitelako baita. Zapuzten ta baztartzten dijoakigu gure itzkuntza erri xean arlotetzat jotzen da, naiz jakitun ta letradu batzuk ikasteari eman.

---

(24) «Euskara parrokiatan», *Príncipe de Viana*, 99, 1974ko maiatza, 1.or.

Olako ilunbetan argi bat ytxekoa agertzea, atsegin ta txalogarí zaigu ta bide ortatik luzaro jafaitzea opa dizut, poz pozik senidetako jotzen zaitugu.

Nire moldakaizkeria azketsi beñiz ere, Gabon zoriontsuak igaro ta agindu zure otsein oni.

Goikoetxea'r Jon

## 2. Itzulpenak.

Alor honetan erreferentzia izan zen Nafarroako elizbarrutiko lanetarako. 1965eko udaberrian liturgia gaiak euskaratzeko osatu zen batzordekide ageri da (25).

Garai hartako zenbait itzulpen bereak direla diote, erraterako Geneziarena non Adan eta Ebaren arteko elkarrizketa toka eta noka egin zuen. Geroago ere elizbarrutien arteko itzulpen lanetan parte hartu zuen. Basilio Sarobe, Sunbillako erretorea, aritu zen buru-belarri egitasmo horretako koordinazio lanetan. Sarobe jaunak, dena artxibatzeke ohitura ona duenez gero, gorderik dauka lan horretan Juan Goikoetxeak 1969an egindako zatia. Berea dela dio «Ordenación general del leccionario de la misa» delakoaren sarreraren itzulpena. Itzulpen horrek argi erakusten du Goikoetxearen euskal sena. Sen horren lekuko gisa irakurriko ditut, gehiegi ez luzatzearen, itzulpen lan horren hasiera eta amaiera. Aipatu dugun izenburua, hots, «Ordenación general del leccionario de la misa» honela eman zuen euskaraz, *Mezaren irakurgaiak moldatzeko era*. Amaieran gaztelaniazko testuak dioen «En el aleluya y en el verso anterior al Evangelio predomina el sentido de aclamación, de grito entusiasta a la Palabra del Señor que va a escucharse como culminación de las lecturas» esaldi luzea honela sintetizatu zuen *Ebanjelio aurretik Alleluia edo bertsoa gorasarre ta poz-irrintzia da Jaunaren Itza entzuteko, irakurgaien pesta buru*. «Recitado pierde sentido» *Irakurri utsarekin gatzik ez du*.

Elizkizunetan erabiltzen ziren beste zenbait testu ere berak itzuliak direla diote (26).

(25) «Comisión para la versión al vascuence de los textos litúrgicos» hartarako honako bost kide hauek izendatu zituzten: Blas Fagoaga, Seminarioko irakaslea, eta lau erretore hauek: Juan Goikoetxea, Arbizukoa; Eugenio Ulaia, Uitzikoa; Esteban Irigoien, Arantzakoa eta Jose Mari Satrustegi, Urdiaingoa. Ik. *Diario de Navarra*, 1965-III-06. Urrats honen berri eman zuen Jose Mari Satrustegik 1965-IV-30ean egindako Euskaltzaindiaren osoko bilkuran. Bilkura horretako aktak Satrustegiren ahoan honako hau jartzen du:

Nafarroan euskal-liturgiaren gora-beherak lehen ilun ikusten zituenak bide onean doazela orain eta Urmenetari esker bideratu dela. (*Euskera*, XIII, 304. or.).

(26) Hala nola, Tomas Otxandorena, Saldiasoko erretorearen ustetan «XII Pio Aita Santuak Andre Mariaren urterako egin dun Otoiiza»ren itzulpena, etab.

### 3. *Príncipe de Viana* aldizkarian idatzitakoa.

Hasieran aipatu dugu zail egin zaigula Goikoetxearen lanaren aipamenak eta testigantzak lortzea. Berak idatzi omen zuen aldizkarietara jo ondoren ere arazo berberarekin egin dugu topo. Zer dela eta? Ez zituelako inoiz sinatzen egiten zituen lanak, ez itzulpenak ez artikulua. Erraterako, *Príncipe de Viana* aldizkariaren zenbaki bakar batean ere ez dugu aurkitu bere sinadurarik. Idazten zuela, ordea, kontu jakina da. Bera zendu eta hurrengo alean honako hau zekarren aldizkari horrek «On Juan Goikoetxea, Arbizu'ko Erretora, gizon guztiz ona, euskaltzale bikaiña il zaigu. Gure euskal aldizkari ontan, aspaldian anitz idatzi zuen Erljio ta Elizari buruz». Horretaz gainera, urte horretako urriaren 28an *Príncipe de Viana*-ko Euskararen Aldeko Sailak (27) Arbizun omenaldia eskaini zion. Bertakoek seme kuttun izendatu eta elizaren sarrerako atearen ondoan dagoen oroitarrian honako hau jarri zuten «erri ontako kristau sinesmenari euskeraren bidez eutsi zion». Ezponda diputatuak oroitarri horren oihala kendu zuenean hitz hauek erran zituen «Juan Goikoetxea zana, Larraun'go euskaldun zintzoa, zainetako kristau, berrogei urtez Arbizu'ko apaiz bikaiña, *Príncipe de Viana* aldizkarian asieratik idazle, Euskaltzaindiko laguntzaille, benetako euskaltzalea ospatu nai izan dugu; ar dezagun bere jarrai-bidea. Aurrera euskerarekin!».

Beraz, baditugu garai hartako hiru lekuko (aldizkaria bera, Ezponda diputatua eta J. M. Satrustegi) bat datozenak, Goikoetxeak aldizkariaren hasieratik idatzi eta lantzen zituen gaiak erlijioa eta eliza zirela aitortzen dutenak. Inolako zalantzarik ez dago *Príncipe de Viana* aldizkarian Juan Goikoetxearen atala «Elizaren itza» zela. Vatikanoko II. Kontzilioaren Batzar Nagusiaren inguruko gaiak lantzen zituen: Elizaren «agjornamendua» eta batasuna, kristauen batasuna, Vatikanoren ondorioak, Eliza gaurko munduan, etab.

Hasieran aipatu bezala, Bidadorrek dio D. Juanek aldizkari horretan «crónicas de lo acaecido en la villa barranquesa» idazten zituela. Gauza jakina da Arbizuko berriemaileak bertako Felipe Araña, Benito Ijurrá, Jexux Razkin eta besteren bat izan zirela. Oker dago horretan eta oker «Elizaren itza» atala Ibarrondorena dela dioenean ere. Urte askoz Amaiurko erretore izan zen Jazinto Sanziñena Etxenike jaunak (28) Ibarrondo ezizenez sinatzen zituen bere lanak. «Elizaren itza» atalean

(27) Sección para el Fomento del Vascuence.

(28) Jazinto Sanziñena Etxenike Arizkungo *Landaberrokoa* etxean jaio zen 1910ean. Bidadorrek, ordea, horrela dio:

Nacido en Amaiur, en 1918, Jazinto Sanziñena Ibarrondo ejerció de párroco en su pueblo la mayor parte de su vida (*Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra*, Pamiela, 2004, 275. or.).

idatzi ziren 60 artikuluko ingurutik batek darama Ibarrondo izena eta beste batek «I». Gainerako guztiak ez daude sinatuak. Oraindik gehiago, Ibarrondoren bi artikuluko horietan argi ageri diren Baztango euskararen zenbait ezaugarri, hala nola, *nai bauzu, ez datzut, ekartzen daku, egiten zakun, dauke, erran zuen, erraten dabe, erran bezein laster, goiti, goitigalea, erreketan beiti, zulotik beiti, kopeta idor, aixtion erraneko, urrikalduta, deuseza...* ez dira behin ere ageri gainerako artikuluetan; bai ordea Arbizun arrunt diren: *asi zakioten, egin behar dakiote, iruditzen dakit, zailtzen dubie, uzten ez dubienak, ok, oik, oitatik, kisa, zenbatenez, geroan da geiago, al bait, aixetu, dirua aittu* (ahitu –gastatu–), *bizitza aittu* (ahitu –bukatu–), *egiten den aiñean, ezain-ezain* (ezarian-ezarian)... Beraz, hizkeraren aldetik, oso zail da, ezinezkoa ez errateagatik, Ibarrondorenak izatea. Bestalde, Goikoetxeak *Mezaren irakurgaiak moldatzeko era* itzulpenetan eta Tauer jaunari idatzitako gutunean erabiltzen duen euskarak bide argia ematen du «Elizaren itza» ataleko artikuluko gehienak bereak direla egiaztatu ahal izateko. Gainera, harreman estuak izan zituen D. Pedro Diez de Ultzurrun *Principe de Viana* aldizkariaren zuzendariarekin. Euskal kulturako beste asko ere hurbiltzen ziren Arbizura berarekin egotera, besteak beste, Jose Migel Barandiaran.

Zer gehiago eta non idazten ote zuen bere lanak inoiz ez izenpetu arren «idazle argia» zela dioten D. Juanek? Hori jakiteko bidea oraingoz ongi aztertu ez diren argitalpen etxe edo erakundeetako artxiboen kudeaketak argi lezake beharbada, edo bere artxibo partikularrak, ematen duen bezala, behin betiko galdu ez bazen behintzat.

Amaitzera noa. Emilio Lintzoainek zioen gerra ondoren eta frankismoaren garaiko giro hartan Juan Goikoetxearengan zerbait berezi nabaritzen zuela, nolabait errateko, *rara avis* bat, bai herrian bai orduko apezten bileretan, bere amahizkuntzarekiko agertzen zuen jarreragatik, nonahi eta beti euskaraz egiten zuelako, alegia, «naturaltasunarekin eta inolako alardetik egin gabe».

Gaur den egunean, XXI. mende honetan biziko balitz, beldur gara gure artean ere ez ote zuen *rara avis* bat izaten segituko. Batetik, euskararen eraginkortasuna naturaltasun osoz eta inolako alardetik egin gabe lortzea orain ere oso bakar batzuen ahalmena dela uste dugulako. Bestetik, norgehiagokako mundu honetan, *curriculum* pertsonalak beste edozein interesen gainetik jartzen diren gizarte konpetitibo honetan, bere izena batere agertu gabe, modurik isil eta ezkatatuenean –anonimoan– bere lanak denen onerako eta zerbitzurako jartzen dituen benetan *rara avis, specimen unicum* ez errateagatik, izanen litzatekeelako gaurko gizartean.

Ohore, bada, jaio zeneko mendeurren honetan gure hizkuntzaren osasunerako eta iraupenerako eredu izan zen D. Juan Goikoetxea Zabalori.

## JOSE MARI SATRUSTEGI, EUSKAL ONOMASTIKAREN ERAGILEA

*Patxi Salaberri Zaratiegi*

Altsasuko ikastolak eskatuta Andres Iñigok eta biok Jose Mari Satrustegiren biografia txiki bat prestatu genuen lehengo urtean Nafarroa Oinez 05en karietara, eta, besteak beste, Arruazuko euskaltzainak onomastikaren arloan egin zuen lanaren berri eman genuen, testuaren barnean lehenik eta bibliografia aukeratuan gero. Oraingo honetan, atalño hura pixka bat garatu gogo dut. Lot nadin beraz lanari.

Jose Mari Satrustegiren lan garrantzizkoenetako bat onomastikan egin zuena da, nire irudiko. Hasieratik Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko kidea izan zen, eta, beraz, jakite horrekin erlazionatutako gai anitz ukitu behar izan zituen: Euskal Herriko herrialdeen eta udalen izenak, auzo anitzenak, mendienak, aurkintzenak, karrikenak, oikonimoak etab. toponimiari dagokionez, eta pertsona izenak, deiturak, hipokoristiko-txikiagarriak eta beste antroponimiaren arloan.

1966an «Las casas de Valcarlos» argitaratu zuen lehen aldiz *Anuario de Eusko-Folklore*-n, eta lan hori bera 1968an berriz ere *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* ezagunean. Urte honetan bertan gehienbat, nahiz ez bakarrik, toponimiari dagokion «-Di botanika atzizkia?» izeneko artikulua karrikaratu zuen *Euskera*-n eta 1989an «Toponimia de Valcarlos» gorago aipatutako *Anuario de Eusko-Folklore*-n. Baditu, baita ere, artikuluxka labur bat baino gehiago Iruñeko *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskara sustatzeko gehigarrian argitaraturik: «Etxe izenak», «Herri-izenak», «Kale izenak», «Leku-izenak»... e.a. Inoiz pertsona izen bat argitzeko orduan toponimoaz ere mintzo da, erraterako «Xabier» izeneko lantxoan. Hauek guztiak Andres Iñigok egin berri duen edizioan ikusteko aukera izanen dugu laster. 1990eko «Planteamiento general de la etnografía de Urbasa» izeneko lanean mendi horretako toponimoak aztertzen ditu.

Toponimia dela eta, aipatutako artikuluez landara, Satrustegiren ekarpena Onomastika batzordean egindako lanera mugatzen dela erran dezakegu, hots, bileretan egindako lanera eta batzordeak bideratutako argitalpenetara. Hemen ondoko lan hauek aipa ditzakegu:

### 1. *Euskal Herriko Udalen Izendegia*

Lan honek 1979an ikusi zuen argia, Koldo Mitxelena buru zelarik. Ber-tan, tituluak berak dioenez, herrialde guztietako herrien izenak euskaraz nola erran behar den zehazten da, bai eta herritarren izena zein den ere. Ez dago dudarik lan hau hasierako, trantsizio garaiko urte zail haietan garrantzi handi-koa izan zela, besteak beste testu liburuak apailatzeko baitezpadako baitziren herri izenak. Espero izatekoa zenez, baditu gerora zuzendu diren arautze pro-positamen batzuk, bereziki euskara aspaldi galdurik dagoen Euskal Herriko al-derdi zabalean: *Agilar = Arranotegi\**, *Kabanillas = Kapanaga\**, *Kadereita*, *Kabredo = Ahuntzegi\**, *Mirafuentes = Iturriaga\**, *Monteagudo = Mendikute\**, *Piedramillera = Miliarri\**, *Ribaforada = Erripazuloaga\** adibidez Nafarroan, baina, hori bai, denak izartxoaz ongi horniturik ageri ziren, asmakari berriak zi-rela adierazteko. Lan hau, bistan denez, bere garaiko umea da, eta oraingo be-giz ikusirik harrigarri egiten bazaigu ere, irudi du Mitxelenak «berrogeizero aspergarria» deitzen duen horretan euskara eta euskal izenak debekaturik ego-teak beste muturrera joanarazi zituela batzordekideak, askatasun pixka bat iz-a-tean. Nolanahi ere, berriz diot batzordeburu Mitxelena zela garai hartan.

### 2. *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herrien Izenak / Relación de las Po-blaciones de la Comunidad Autónoma Vasca*

Lan hau Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen, 1986an. Hitzaurrean erraten den bezala, *e.d.e.b.e* edo *n.t.e.e.c.* ageri da zenbait aldiz, aspaldidanik erdal-dun diren alderdietan, bereziki Bizkaiko Enkarterrin eta Arabako eremu bate-an, neologismoen bidean «desbideratze arrisku bat dago»elako eta «oso kon-tu handiz» jokatu behar delako. Beraz, 1979ko obratxoan hartutako bidea alde batera uzten da eta daturik aski ez denean aipatutako akronimoa ezartzen da.

### 3. *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*

Lan hau oker ez banabil Nafarroako Gobernuaren eskariz burutu zuen Euskaltzaindiak (berau baita 86ko Euskararen legearen arabera hizkuntza ahol-kulari ofiziala Nafarroan) 80.eko hamarkadaren hondar urteetan, eta argitara-tu 1990ean. Oraingoan koordinatzailezat Jose Mari Jimeno Jurio ageri da eta izan ere, ikertzaile hau izan zen dokumentazioko lekukotasunak atera zituena, bai eta ere herriz herri galdeketak eta grabaketak egiten ibili zena, ni lagun-tzaile, galdera-egile eta grabaketen transkribatzaile ninduela. Jose Mari Sa-trustegi batzordekidetzat azaltzen da; buru Henrike Knörr zen orduan eta bu-ruordetzat Mitxelena ageri da, 1987an hil bazen ere. Ni batzordean lanean hasi nintzeneko zendua zen Errenteriako hizkuntzalari handia.

Liburu hau osatzeko 79koa moldatzeko egin ez zen ikerketa burutu zen: argitaratuta zeuden agiri bildumak miatu ziren, artxiiboak ere arakatu ziren, eta honekin batean, eta erran bezala, ahozko galdeketa franko egin genituen, usu hizkuntzaren mugako ibar-herrietan gelditzen ziren azken euskaldunekin: Aez-

koan, Arakilen, Erroibarren, Esteribarren, Gulibarren, Zaraitzun... eta abarretan, barrualdeko bestelako eremu euskaldunagoak ahantzi gabe.

#### 4. *Onomasticon Vasconiae*

Onomastika batzordearen kide zen aldetik, Satrustegi bilduma honetan argitaratu diren lan guztietan agertzen da, 2003an hil zen arte. Liburu sorta honetan hainbat herritako toponimia txikia biltzen da eta gehienetan arautzen; azalpen etimologikorik, ordea, ez da horietako gehienetan agertzen.

Antroponimiaren sailean, Luzaidera iritsi eta berehala, 1957. urtean, «Apellidos vascos en documentos de la Baja Navarra» artikulua argitaratu zuen *BRSVAP*-en eta lau urte beranduago «Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca» *Euskera*-n. Azken honetan Luzaideko dokumentuetan ageri diren antroponimoak zerrendatzen eta iruzkintzen ditu, espreski dioen bezala burutik bururako lana egiteko asmorik ez bazuen ere. Ohar interesgarri batzuk egiten ditu, erraterako erdarazko *Pedro* izena eguneroko bizian *Predo*, *Pedro*, *Pedrito* / *Peio*, *Peito*, *Peitto* / *Pello*, *Pelo* / *Piarres*, *Pierre*, *Pier*, *Pierro* / *Betti* eta *Beti* «itzultzen» dela dioenean, edo bataio agirieta *Juan* (eta *Jean*) izenaren ordainetan *Juan*, *Juanito* / *Juanes*, *Joanes* / *Manez*, *Mañez* / *Manex*, *Mañex* / *San* –*Xan* seguruenara– erran litekeela dioenean. Hain zuzen ere, ugaritasun «gehiegizko» hau arazotzat hartzen du *Euskal Izendegia*-ren bigarren argitalpena egiteko aukera duela Euskaltzaindian jakinarazten duenean («Euskal Izendegiaz», 1977). Honela dio: «Azkenekotz, Mari, Pedro, Juan, eta beste halakoren baten oztopoa ugaritasuna da. Hoge eta gehiago aldaketa duen izenarekin zer egin! Zein aukeratu? Peru, Peyo, Pierre, Beti, Betiri...» (143. or.).

Nolanahi dela, Arruazuko euskaltzainak gogokoen zuen lana *Euskal Izendegia* zen. Egia da ez zela hutsetik abiatu, eta XIX. mendearen bukaeran Sabino Aranek zenbait arau fonetiko erabiliz «egokitutako» izenek Gerla Zibilaren aitzinetik arrakasta handia izan zutela, baina, ezaguna denez, Francok boterea bereganatzearekin izen horiek guztiak debekaturik gelditu ziren, halako moduz non hilerrietatik ere kendu behar izan baitzituzten; izenaren jabea bizirik zegoenean ere hari deus erran gabe egin ziren zenbait aldiz izen aldaketak, jaiotze eta bataio agiritan.

Hirurogeiko hamarkadan euskararen aldeko mugimendua indarberritzen hasi zen, eta, horrekin batean, haurrei bataioan euskal izenak paratu nahia ere izugarri bizkortu zen. Hau ikusirik, Euskaltzaindiak erabaki zuen berpiztua zen euskal izenen egartsu hari aterabidea eman behar zitzaioela, bai eta, orobat, urte batzuk lehenago A. Irigaraik eta K. Mitxelena argitaratutako «Nombres vascos de persona» artikulua eta lehenaren *Nomenclátor Euskérico de nombres de pila* izen zerrenda osatu beharrak zirela. Zeregin hau Satrustegiren esku utzi zuten. Honek lanari ekin eta 700 izen zituen *Euskal Izendegia* liburuxka moldatu eta karrikaratu zuen 1972an; gero, 1977an, bigarren argitalpen osatua ate-



ra zuen, igarotako bost urteetan jasotako 500 izen gehiago biltzen zituena, 1.200 Satrustegik dioenez, eta 1983an hirugarren edizioa, berriz ere osatua eta hobetua, 1.600 sarreraz goiti biltzen baititu.

Aurreneko argitaraldia Franco artean bizirik zegoela egin zen beraz, eta liburuan soilik herrietako ama birjinen izenak (*Aitziber, Aizpea, Erkuden, Nagore, Naiara, Oskia...*) eta gaztelaniazko baliokiderik ez zutenak (*Eneko, Oneka, Saioa, Ziortza...*) sartu ahal izan zituen; adibidez, *Antonio* eta *Luisa* erdaraz baizik ezin zitezkeen erabil, eta berdin gertatzen zen Mariaren bizitzako misterioetan iturri zutenekin (*Asunción, Concepción...*). Bestalde, itzulpenik ez zuten izenen kasuan nondik zetozen erran behar omen zen haurra erroldatzerakoan, eta «hala ere, oztoporik aski» izaten zen, Satrustegik berak dioenez. Oztopo horien artean epaileak gurasoek nahi zuten izena ez, baizik eta haien erdarazko baliokidea edo baliokide ustekoa paratzea zegoen. Adibidez, *Amaia* eta *Ainara*-ren ordez *Maria Fin* eta *Golondrina* jartzea aipatzen du Satrustegik, edo lehena «extravagante, irreverente eta ijito izentzat» hartzea. Oztopoztat eman daiteke, orobat, *Maite* eta *Iñigo*-ren ordainetan *Maria Teresa* eta *Ignacio* ezartzea, nahiz azkenak *Iñigo*-rekin zerikusirik ez duen, hau jakina den bezala *Eneko*-ren erdarazko kidea besterik ez baita, gure artean franko dokumentatzen bada ere. Egun hain hedaturik dagoen *Nerea* izena, bestalde, *Nereogizon* izenaren aldaera femeninotzat eman beharra zen, epaileek onartuko bazuten.

Zenbait, euskal izenen aldeko giro hartan, izenak asmatzeari lotu zitzaizkion; Satrustegik, aldiz, idazki zaharretako bildumetan ageri direnak eta izen herrikoiak, herri tradiziokoak bildu nahiago izan zituen. Hemen, jakina, ibilitako irizpidea ezin erabat objektiboa izan, «herria» zehazki zer den eta honen «azken hitza» xeheki nola definitzen den ez baita aise erratea. Honela dio arruazuarrak: «Kriterio bat behar beharrezkoa dugu: nundik datozen usain usnaka ibili gabe, jator antzekoak jaso egingo nituzke eta, komeni etzaizkigunak utz. *Gorka, Ander, Iker, Jurgi*, eta abar, sartu; *Errapel* (Rafael) eta antzekoak bazertu, mendietan dabilten gazteei errapel izenak beste zerbaitek ekartzen bai die gogora (...). Beste alde, ez da laboratoriorik eta asmakizun hutsez egitekoa ere; herriarekin batera joan behar dugu, eta azken hitza zein hartu eta zein utz, berak du. Gure eginkizuna geroari begira gauzak zentzuz eramatea da».

Kristau izendegiko izen guztiak itzultzea edo itzultzen saiatzea ere ez zitzaion ongi iruditzen, ez baitzen, haren ustez, euskal izendegiaren egitekoa munduan zehar diren izenen biltzea. Bestalde, «Arana-Eleizalderen zerrendako izen gehienak baztertuak gelditu ziren, eta berdin han hemenka ikusten ziren beste zerrenda batzu. Azken orrietan, bigarren mailakoak izan balira bezala sartu genituen herriak zebiltzanetarikoak» («Euskal Izendegiaz», *Euskera* 22, 1977-1, 141-142. orr.).

Lehen argitalpenetik bigarrenera, izen kopuruaren berretzeaz landara, aldaketa grafiko batzuk ere izan ziren: aurreneko hartan <i>-z nahiz <y>-z

ri ziren izenak (*Amaia, Amaya; Leire, Leyre* adibidez) <i>-rekin agertzen dira bigarrenean, baina Jose Marik dioenez «oso sartuak» zeuden izen horiek Nafarroan, eta «ezin gogortasunez moztu». Bigarren arazoa hitz hasierako *h*-rena da: *Aritz / Haritz, Harkaitz / Arkaitz* erraterako; hau Satrustegik berak aipatzen badu ere, bigarren argitalpenean *Aritz* eta *Haritz*, biak, sartzen ditu, baina *Arkaitz* baizik ez. *Aimar / Haymar*-en kasuan aipatutako bi arazoak batean ageri dira, eta hemen ere biak ematen ditu bigarren argitalpenean, lehenetik batere aldatu gabe. 1976ko artikuluan azaleratzen duen hirugarren arazoa izen hasierako <I> versus <J> da, eta dio idazkera kontua ez ezik ebakerarena ere badela: *Jon / Ion, Jurgi / Iurgi, Jasone / Iasone...* e.a. Nolanahi ere, lehen argitalpenean gizonenetan *Iurgi* besterik ez da azaltzen, gerora arrunt zabaldu diren *Jokin, Jon, Joseba, Josu* falta baitira. Bigarrenean, berriz, <J>-rekin emanak dira horiek: *Jokin, Jon, Joseba, Josu, Julen, Jurgi*. Neskenetan lehenean ageri ez diren *Jaione, Jasone, Joana, Jokiñe, Jone, Josune, Julene* eta *June* azaltzen dira bigarrenean.

Kontuan hartu behar da 1977an onartutako legearen arabera Espainiako hizkuntzetako batean, edozeinetan, ezar zitekeela sortu berriaren izena, eta, gainera, lehendik jarritakoa «Espainiako beste edozein hizkuntzatan duen antzekora alda» zitekeela; honek, bistan denez, lehen Erregistro Zibilean ezin sar zitezkeen izenak sartzeko aukera eman zuen. Hau baliatuz kondairan, literaturan, mitologian eta egileak «herri ohitura» deitzen duen horretan ageri diren izenekin gehitu eta berretu zuen lehen argitalpena, alde batera utziz, ordea, «antzinako zaharkeriak», nik hauen mugak non dauden garbi ez badausat ere.

Bestalde, Satrustegik azaltzen du bigarren argitalpen hau ez dela zerrenda itxia eta Euskaltzaindiak, agertzen diren izen guztien bilduma egiten duen bitartean, bigarren edizioan azaltzen ez direnen agiria ere eman lezakeela. Hirugarren argitalpena egin aitzinetik, 1980an, legeak hurrei nahi zuten izena (historikoa, mitologikoa, geografikoa, abstraktua...) ezartzeko aukera eman zien gurasoei, haurarentzat iraingarria ez bazen eta sexu nahasketarik sortzen ez bazuen. Satrustegik, hau ikusirik, mordo ederra gehitu zion lehendik zuen zerrendari. Denera, 1983ko edizioan, 1.600 sarreraz gorako lana apailatu zuen, erran bezala. Honetaz gainera, hirugarren edizioak duen berrikuntzarik nabarmenena «erdal izenen kidegoa» deritzan atala da, non euskarazkoen gaztelaniazko baliokideak ematen baitira, euskara -> gaztelania eta gaztelania -> euskara hurrenkeretan. Hondarreko honekin batean, gainera, frantsesa -> euskara zerrendak ere sartzen ditu Satrustegik.

Euskal Herriko lehen izen iraultza Sabino Aranaren eskutik etorri zen, halako moduz ezen egun ohikoak diren izen franko autore honi zor baitzaizkio. Neska izenei *-e* edo *-ne* (*-ñe* aurrean *i* dagoenean) bukaera ematea eta mutikoenei *-a* (ez denei hala ere), erraterako, Aranaren gauza da, gutxienez Astarloa apologistagandik heldu dena, durangarraren erranetan bataiarrian, ura hartzean, neskatikoei *eee* negar egiten baitzuten, eta mutikoei *aaa*. Ustekeria

honen ondorio dira *Agurtza / Agurtzane, Aintza / Aintzane, Alberta / Alberte, Barbara / Barbare, Begoña / Begoñe, Edorta / Edorte, Endika / Endike, Estepa / Estepane, Joseba / Josebe, Kepa / Kepe...* eta beste anitz.

Jakina, gurasoei ez zitzaizkien izen hauek guztiak gustatu, *Barbara* eta *Begoña*, kasurako, neska izenak izan baitira azken denboretan gure artean, gaztelaniaz, ezaguna denez, *-a* letraz bukatzen diren izenak femeninoak direlako. Bokal horrekin amaitu arren arrakasta eduki dutenen artean *Edorta, Gaiška, Gorka* eta *Joseba* aipa daitezke. Aranaren zerrendetan baziren, bestalde, beste gisakoak ere, hots, maskulinoan *-a* bukaera ez zutenak: *Gotzon / Gotzone, Jayo / Jayone, Josu / Josune, Julen / Julene...* eta abar.

Satrustegik, 1983ko argitalpenean, izen horietako batzuk ontzat hartu zituen: *Abar / Abarne, Ander / Andere, Andolin / Andoliñe, Andoni / Andone, Euken / Eukene, Mikel / Mikele...*, baina ez denak: Aranaren *Erregin / Erregiñe, Erroman / Erromane, Gorka / Gorke, Iñaki / Iñake, Jagoba / Jagobe, Julen / Julene, Kepa / Kepe* pareen kasuan, adibidez, lehena sartu zuen baina bigarrena ez, eta *Alatz / Alazne, Bakar / Bakarne, Edur / Edurne, Etor / Etorne, Jaio / Jaione, Jaso / Jasone*-renean, berriz, aurrenekoa ez zuen kontuan hartu baina bai bigarrena. Inoiz Aranaren zerrendako biak eman zituen, baina ez sexu banaketa berarekin: *Gentza* eta *Gentzane*, erraterako, emakume izentzat sartu zituen, bizkaitarraren lanean lehena maskulinoa eta bigarrena feminoa baziren ere; hauekin batean, gainera, berak asmatu edo nonbaitetik hartutako *Bakene* bildu zuen. Zenbaitetan ukituren bat *-edo* ukitua baino aise gehiagoko zerbait<sup>-</sup> egin zien Aranaren bikoteei: *Paskal / Paskale (Arana) // Paskal, Paxkal / Paskalin* (Satrustegi), *Unai / Unaiñe (Arana) // Unai / Unaisa* (Satrustegi). Badira, orobat, nesken izenetan behintzat, Abandokoaren bidetakoak izanagatik ere honek asmatuak edo moldatuak ez direnak: *Bakene, Egokiñe, Eguzkiñe, Goizane, Zuriñe...* eta abar.

S. Aranaren liburuko izenak edo hauen tankerakoak ez ezik, bestelako batzuk ere Satrustegik hedatu zituen, edo bere eragitez zabaldu ziren, hots, bere izendegian agertzeagatik; kasu honetan daude, besteak beste, ondoko izen hauek: *Ainhoa, Aiora, Aitziber, Ainara, Amaia, Amagoia, Arkaitz, Asier, Egoitz, Eguzkiñe, Ekaitz, Eneko, Erkuden, Garazi, Garikoitz, Hodei, Ibai, Nagore, Oier, Oihan(a)* eta *Urtzi*. Huts egiteko beldurrik gabe erran daiteke Arruazuko euskaltzainaren lanak belaunaldi oso baten onomastika bideratu eta markatu duela, hainbestearino non, eskualdeen arabera, XX. mendearen erdialdean ohikoen ziren izenak lekutu eta haien ordainez *Euskal izendegia*-n agertzen direnak ibiltzen baitira orain.

Satrustegi hil baino bi urte lehenago, 2001ean, Euskaltzaindiak aski banaketa zabaldu izan duen *Euskal Izendegia*-ren argitalpen berria egin zuen eta 2002an argitalpen horren berrinprimaketa, liburua ahiturik baitzen orduko. Euskal izendegi hau Onomastika batzordean egin genuen, eta lan gehiena Mikel Gorrotxategiri eta neroni egokitu zitzaigun. Liburuan erraten denez, oina-

rrizko zerrenda Satrustegirena da, baina bi liburuak alderatzen badira garbi ikusten da lan desberdinak direla, besteak beste azkenekoan sarrera bakoitzaren azalpena ematen delako, euskaraz lehenik eta erdaraz gero. Jose Marik hitzaurretzat-edo «Pertsona izenen historia» deritzan atala apailatu zuen liburu honetarako, idazki benetan interesgarria euskaldunon izendabideen berri jakiteko. Arruazukoak aitzinekoen bidea, aita-amabixien aldia, eguneko santua, izen politak (-*ina*-dunak gerra aurretik: *Agripina*, *Avelina*, *Carolina*...) eta izen bikoitzak (*Marijoan*, *Marimartin* zaharretan, *Francisco Javier* edo *Mari Carmen* oraingoetan) sailak bereizten ditu bere idazkian.

Antroponimiaren arloan *Euskal Izendegia*-ren aipatu hiru edizioez gainera eta hauen prestantako-edo, artikulua labur mordoxka bat badu idatzirik Iruñeko *Príncipe de Viana* aldizkarian euskara sustatzeko gehigarrian, hainbat izenen inguruan, laster Andres Iñigok prestatu duen edizioan aterako direnak. Horien artean ondoko izenok aztertzen ditu: *Aitor*, *Amaia*, *Edurne*, *Eneko* eta *Iñigo*, *Maite*, *Mari*, *Nerea*, *Nora*, *Oier*, *Unai*...e.a.

Horietaz gainera, eta nire hitzaldi luzeegi hau bukatzeko, ez dut aipatu gabe utzi nahi Onomastika batzordeak prestatu zuen *Nomenclátor de apellidos vascos / Euskal deituren izendegia*, Satrustegik honetan ere lan egin baitzuen, oraingoan pisu gehiena Mikel Gorrotxategiren bizkar gelditu baldin bazen ere. Egia da zerrenda hutsa dela, baina egia da, orobat, deituren arautzeak buruhauste franko eman dizkigula orain baino lehen, eta gero ere emanen dizkigula, gai benetan korapilatsu eta zaila baita hau.

Azkenik, erran nahi dut Satrustegiren eragina, azken urteotako euskal onomastikan, hagitx handia izan dela eta berak 60ko hamarkadan hasitako lanari esker dutela egungo haur, gazte eta dagoeneko hain gazte ez diren askok duten euskal izena. Ez dakigu nolakoa izanen litzatekeen orain gure paisaia onomastikoa Satrustegi bizi izan ez balitz eta egin zuen lana egin izan ez balu, baina seguru nago ez litzatekeela hain euskalduna izanen eta munduan barna hedatzen ari diren telebistako izen (nire ustez) itsusi horiek ohikoagoak izanen liratekeela gure artean.

## Bibliografia

- EUSKALTZAINDIA (1979): *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo.
- (1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- (2001): *Euskal Izendegia*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz. Lan honen berrinprimaketa 2002koa da.
- IÑIGO, A. (2005): *Jose Mari Satrustegi, ereile eta lekuko*, Iruñea.

- IÑIGO, A. & SALABERRI, P. (2004): *Jose Mari Satrustegi. Nafarroako euskararen ikurra / Símbolo del euskera en Navarra*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea.
- IRIGARAI, A. (1966): *Nomenclátor euskérico de nombres de pila aprobado por la Academia de la Lengua Vasca*, Bilbo.
- IRIGARAI, A. & MITXELENA, K. (1955): «Nombres vascos de persona», *BRSVAP* XI-3 eta 4, 405-425.
- SALABERRI, P. (2004): *Jose Mari Satrustegi (1930-2003)*, Bidegileak bilduma, Eusko Jaurlaritza, Bilbo.
- SATRUSTEGI, J. M. (1957): «Apellidos vascos en documentos de la Baja Navarra», *BRASP*, XIII-1, 249-251.
- (1961): «Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca», *Euskera* VI, 209-229.
- (1965-66): «Las casas de Valcarlos», *Anuario de Eusko-Folklore* XXI, 13-34.
- (1968): «Las casas de Valcarlos», *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* XXIV, 1 eta 2 koadernoak, 121-145.
- (1972): *Euskal izendegia*, Banco de Vasconia, Iruñea. Bigarren argitalpena 1977koa da eta hirugarrena, Euskaltzaindiak Bilbon egindakoa, 1983koa.
- (1977): «Euskal izendegiaz» eta «Euskal Izendegiaren azken orraztape-nak», *Euskera* 22, 1977-1, 141-143 eta 143-145.
- (1982): «Pertsona izendegiaren hirugarren argitalpena», *Euskera* 227, 1982-1, 255-261.
- (1990): «Planteamiento general de la etnografía de Urbasa», *Los Grupos Humanos en la Prehistoria de Encia-Urbasa*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 55-70.